

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa aurrera eramateko, hasieran gutako bakoitzak 2000€ jarriko ditugu diru kopuru zehatz bat edukitzeko eta honez gain, mailegu bat eskatuko dugu Rural Kutxan lagungarria izango dena, horrela gure enpresak edukiko dituen gastu guztiak diru horrekin ordainduko ditugu.



Gure enpresak hobe funtzionatu dezan, enpresako garraio bat edukitzea pentsatu dugu, furgoneta bat hain zuzen ere. Furgonetarengan ez dugu gasturik egin behar; izan ere, taldeko batena erabili behar dugulako, Aimarrena. Garraio hau gidatzen Ander Irure egongo da, orientazio ona duelako eta bizitzan zehar asko bidaiatu duenez Euskal Herriko leku asko dakizki. Anderrek honekin gure produktuak garraiatuko ditu, baita laguntza behar duenean gutako norbait eraman ere.

Gure taldean gaitasun anitz daude, bakoitza gauza desberdinetan delako trebea:

- Aimar, oso trebea da produktuak saltzen, eta jendea konbentzitzea da berari gustatzen zaiona.
- Maddi eta Ander Probanza oso onak dira lanak eta proiektuak aurrera eramaten eta horregatik, Aimarrek jendea konbentzitu ondoren hauek tramite guztiak egingo dituzte eta beraiekin harremana edukitzen saiatuko dira.
- Ander Irurek, diseinuak egingo ditu, teknologian interesatua dagoelako eta ondo eramaten duelako; konfigurazioa ere hark egingo du, nola egiten denaren ideia bat duelako eta honi buruz ikasi behar duelako.



E.E.

Gure produktuaren salmentak igotzeko web orrialde bat sortuko dugu, bertan gure produktua bere xehetasunekin agertuko da, gaizki ulerturik ez egoteko, eta horrez gain bezeroek bertan erosteko aukera izango dute. Honen inguruan ez daukagu hainbeste ardura eduki beharrik. Izan ere, gure lagun batek eraman behar digulako. Horregatik, Maddik lagunduko dio, bertan zer informazio eta nola idaztea nahi dugun esplikatzeko eta gero berak egin al izateko. Baina honez gain, guk gure ingurukoei esplikatu eta lau haizetara zabaltzen saiatuko gara, dena errazago izateko.

Enpresa munduan berriak garenez, oso garrantzitsua iruditzen zaigu kritikak eta noski gauza onak entzutea; hauekin, gure enpresa hobetu dezakegu eta jende gehiagok produktua erostera bultzatu. Hau egiteko inkesta bat pasatzea.

Laburbilduz, Ander Irurek kontsignen diseinuak egin eta furgonetaren bidez produktua garraiatuko du. Aimarrek, bezero berriak lortzen saiatuko da, jendeari gure produktua azalduz eta konbentzitzen saiatuz. Ander Probanzak, proiektua aurrera eramango du, bezeroen kezka azaltzen, arazoetaz arduratzen, eskaerak nora eraman behar diren esanez.... Maddik, Ander Probanzari lagunduko dio, laguntza behar duenean laguntzeko. Baita, Ander Irurek laguntza behar duenean furgonetan lagunduz eta gure webgunea eramaten duenari informazioa ematen. Gainera, bulego txiki bat dugu gure proiektua aurrera eramateko eta bezeroek eduki ahal dituzten arazoak konpontzeko.

Hau guztia ondo doakigula zehazteko, noizean behin inkesta bat pasatzea pentsatu dugu. Horrela, gure bezeroen edo enpresa handien iritzia jakin dezakegu, baita hobetzeko gauzak baditugu ere. Gainera, kritikengatik eta bezeroengatik asko ikasten da, beti ere errespetuz izaten badira. Horregatik, kritikak errespetuz diren bitartean ondo hartuko ditugu, hobetzen saiatzeko.